

Gillermo Arbeloa presoari hirugarren gradua ezarri diote

Ajuria Eneko itunkideek bergizarteratzeari buruz ez eztabaidatzea erabaki dute

Gillermo Arbeloa presoari hirugarren gradua ezarri diote eta kartzelatik kanpora irteteko lehen baimena Gabonzahar egunean izan zuen, Vasco Press agentziak jakinarazi zuenez. Ajuria Eneko Ituneko alderdiek bergizarteratzeari buruz hauteskunde giroan ez eztabaidatzeko konpromezua hartu zuten azken bileran.

DONOSTIA

Gillermo Arbeloa, HBko parlamentari ohia, Langraizko kartzelatik irten zen joan den ostegunean, hirugarren graduaz baliatuz, Vasco Press agentziak jakitera eman zuenez. Hirugarren gradua ezarri izanak kartzelatik irteteko baimemak izateko eta kanpoan lan egiteko eskubidea ematen dio Guillermo Arbeloari. Erabakia ostegun arratsaldean hartu zuen Langraizko kartzelako zuzendaritzak.

Gillermo Arbeloa Lizarran jaioa da, 44 urte ditu eta 1986tik dago espetxerata 23 urteko kartzela zigorrarekin. Behin-behineko preso izan zenean HBko hautagai eta hautatua izan zen Nafarroako Parlamenturako 1986ko hauteskundeetan. Nafarroako Gobernuak lehendakari gisa aurkeztu zuen HBk eta inbestidura saioan parte hartu zuen.

Langraizko hiru preso daude dagoeneko hirugarren graduari, Guillermo Arbeloaren kasua Isidro Etxabe eta Josu Urratiarenei



Gillermo Arbeloa, HBko lehendakari gisa izan zenean.

JOXE

gehitzu gero. Etxabe eta Urrutiarekin gertatu zen bezala, Guillermo Arbeloak indarkeriaren erabilerari buruz egindako kritikak komunikabideetan aireatu egin ziren, senideei bidalitako gutunak argitaratu ondoren.

Gaur egun «borroka armatua lekuz kanpo» dagoela defenditu zuen Arbeloak uztailaren argitara eman zen gutunetako batean. «Ez da posible ez ezagutzea inguruko errealitatea eta euskal gizartearen izan den aldaketa soziologikoa»,

zioen Arbeloak. «Errealitateak agindu beharko luke», gaineratzen zuen. «Zer garen, zenbateko indarra daukagun, sortzen dugun arbuioa, gure inguruan dagoen gero eta hutsune handiagoa kontuan hartu beharko genuke».

AJURIA ENEKOEN KONPROMEZUA

Ajuria Eneko Ituneko alderdiek presoaren bergizarteratzeari buruz hauteskundeetan eztabaidarik ez egiteko konpromezua hartu zu-

ten azken bileran, 'El Pais' egunkariak ostegunean argitara eman zuenez. «Ez da erraza izango baina desgastatzeko arma gisa ez erabiltzeko konprometitu ginen», adierazi dio Jaime Mayor Orejak aipatutako egunkariari.

Bileran parte hartu zuten alderdien konpromezua Etxabe eta Urrutiarekin hasitako prozesua ez geldiaraztea du helburu, aipatutako egunkariaren arabera. Joan den abenduaren 15az geroztik Madril eta Gasteizko administrazio eta alderdi batzuen arteko kontaktuak izan dira hirugarren gradua preso gehiagori emateko, 'El Pais-eko' iturrien arabera.

SUP SINDIKATUA DAMUTUEN ALDE

SUP Espainiako Poliziaren sindikatu nagusiak bergizarteratze politikaren kontra azalduko da hemendik aurrera, duela bi aste Vigon egin zuen Kongresuan erabaki zuenez. Erabaki honen berri joan den ostegunean eman zion Jose Manuel Sanchez Fonet SUPeko idazkari berriak Efe agentziari.

SUPen ustez bergizarteratze politikak «ez darama inora» eta espetxeko onurak «damutuei» bakarrik eman behar zaie. «Batzuen eta besteen arteko diferentzia, honako hau da: erreintertatuek ez dute Justiziarekin kolaboratu behar eta damutuek bai».

SUP sindikatuak UGT, CCOO eta USOrekiko hurbilketa bultzatuko du «beti ere hauek LAB erakunde sindikala bakarrik uzten baldin badute», Vigoko Kongresuan erabaki zuten.

HBko senadoreek soldatarik gabe segitzeko asmoa du Senatuak

MADRIL

HBko hiru senadoreei soldata kentzen segitzeko asmoa du Espainiako Senatuak. Jada, Senatuko Mahaiak zigor ekonomikoaren luzapena onartzeko tramiteak hasita erabaki du. Bernardo Bayona Senatuko lehen lehendakariordeak bidalia die hiru senadoreei zigorra luza daitekeelako abisua alegazioak aurkez ditzaten.

HBko senadoreei diru-sariak kentzeko erabakia joan den martxoaren 18koa da. Senatuko osoko bilkurak hamar hilabeteko zigorra erabaki zuen orduan Inigo Iruin, Jose Luis Elkorro eta Jose Luis Alvarez Enparantzarentzat. Joan den ekainean, Alvarez Enparantza 'Txillardegik' eskainua uztea erabaki zuen eta bere lekuan HBk Eva Forest jarri zuen. Eva Forest ez da Senatura agertu «legearen eginduz» formularen bidez bere eskainuaz jabetu eta gero. Forestek uztailetik aurrera jaso ditu diru-sariak baina, aurikuspenen arabera, 1993ko lehen osoko bilkuran kentzeko erabakia hartuko du Senatuak.

Iruin eta Elkororen zigorra urtebetez, luzatzea proposatuko du Senatuko Mahaiak. Foresten zigorra, berriz, sei hilabetekoa izango da.

«Bi nazio independente berrien» sorrera agurtu du HBk

DONOSTIA

Eslovakiaren eta Errepublikaren Txekarraren sorrera agurtu zuen atzo Herri Batasunak prentsa agiri baten bidez. 1993 urte berriaren lehen berri itxaropentsua «bi nazio independente berri hauen sorrera» izan da, HBren ustez.

Independentzia «elkarriketaz eta bien arteko akordioaz» eskuratu izana azpimarratu ondoren, Espainia bezalako mendebaldeko estatuak kontuan hartu beharko luketela adierazi du HBk. Desastre ekonomikoa iragarri Eslovakiaren independentziaren kontrako ahotsak mendebaldeko estatu «boteretsuetatik» atera direla gogoratu du HBk. Bide batez, autodeterminazio eskubidea eskatu du HBk.

Epaileak diligentzia berriak agindu ditu Iribarren kasuan

IRUÑEA

Iruñeko 3. Instrukzio Epaitegiko epaileak berriro ireki du Mikel Iribarren kasua. Diligentziak artxibatzea agintzen zuen erabakia baliogabetu egin du eta diligentzia berriak egitea agindu akusazio partikularrak eta herri ekimenak aurkeztutako erreforma errekurtsioa aintzatzat hartuta. Ikerketak artxibatzeko ebazpena lesioen egilea identifikatzeko ezintasunean oinarritzen zen.

Mikel Iribarren larriki zauriturik gertatu zen abenduaren 15ean, manifestaldi baten ostean izandako istiluetan. Familiaren eta herri akusazioaren ustez, zauri horiek Poliziak gertu-gertutik

jaurtikitako ke pote batek eragin zizkion eta errekurritu egin zuten beharrezko diligentzia guztiak egin ez zirelakoan.

Diligentzia berriak agindu dituen epaileak egiaztatu egin du istiluetan parte hartu zuen polizia baten deklarazioa falta dela. Polizia honi deklarazioa hartzea eskatzeaz gain, ke poteen ondorioak neurtzeko frogak agindu ditu. Froga honen helburua ke poteek sortarazten dituzten ondorioak egiaztatzea izango da. Goardia Zibilak Polizia Nazionalaren ke poteekin jaurtiketa frogak egin beharko ditu judizio batzordearen aurrean. Nafarroako Ospitaleari Mikel Iribarren txosten medikoak eta historial klinikoa eskatuko dizkiote.

SUPER SONIDO
SONY REN BANATZAILE OFIZIALA
URBIETA 40 - LARRAMENDI 19
DONOSTIA

Egunkaria
IRAGARLE APARTA: (943)469022